



Euskal Mendizale Federazioak Euskal Selektzioa ordezkatzuko duten korrikalariak aukeratzeko irizpideak eguneratu eta gardenago egiten ditu

Euskal Mendizale Federazioaren (EMF) nahia da azalpen bat ematea eta, bereziki, parte hartuko dugun lehiaketetarako lasterkarien selektzioa osatzerakoan jarraituko diren irizpide berriak jakinaraztea.

EMFko mendi lasterketetako Euskal Selektzioaren berrikuntza karguen buru izateko izen propioen aldaketatik haratago doa. **Irizpide** batzuk ezarri ditugu Euskal Selektzioan parte har dezaketen korrikalariak definitzeko, **kirol-merituetan, alderdi objektiboetan eta izaera teknikoko beste batzuetan oinarrituta.**

Federazio-lizentzia izatea, Euskal Selektzioa ordezkatzeko ageriko konpromisoa edo Mendiko Lasterketen Arlo Teknikoak programatzen dituen kontzentrazioetara edo entrenamenduetara joateko konpromisoa bezalako nahitaezko baldintzez gain, hainbat hautaketa-irizpide definitu ditugu eta publiko egin nahi ditugu, korrikalariak Euskal Selektzioan parte hartzeko dituzten aukerak ezagutu ditzaten.

- Euskadiko banakako txapeldunen eta autonomia-erkidegoetako selektzioen **ZUZENEKO SARBIDEA** espezialitate bakoitzean.
- Euskadiko Banakako Txapelketetan, Estatuko txapelketetan eta selektzioetan korrikalariak lortutako **EMAITZAK HARTUKO DIRA KONTUAN.**
- Euskadiko Kopan eta Espainiako Kopan behin-behineko **SAILKAPENA.**
- EMFk edo FEDMEk homologatutako proben eta nazioarteko probetako **EMAITZAK**, parte-hartze maila handikoak
- EMFren mendiko lasterketen **teknifikazio-taldeko** kide izatea ere positiboki baloratuko da.
- Horretarako, hautatzaileen **IRIZPIDE TEKNIKOA** inplementatu behar da.



EUSKAL SELEKZIOA, IREKIAGOA ETA INDARTSUAGOA

EMFtik argitu nahi dugu orain arte hautatzaile izan direnen jarraitutasunik ezaren arrazoiak ez duela zerikusirik orain arte lortutako kirol-emaitezkin, baizik eta egungo Zuzendaritza Batzordeak Euskal Selektzioa hautaketa irekiagoa egin nahi duelako, sarbide- eta kudeaketa-irizpide gardenagoekin, eta lehiaketetako kirol-meritua oraindik ere saritua izan dadin.

Aurreko hautatzaileekiko desadostasunak egiaztatu ondoren eta proiektuaren ikuspegi berarekin bat ez datozela ikusita, beren karguak aldatzea erabaki da, gure ustez Euskal Selektzioaren proiektu berria mendi lasterketetan eraman dezaketen pertsonak buru ditzaten eta marka nazioartekotzen urratsak ematen jarrai dezaten, guztiek norabide berean arraun eginez.

Selektzio honen parte ez izateko nahia adierazi duten pertsona guztien erabakiak errespetatzen ditugu, selektzio hori mendizale guztiena baita. Lasterkari onenek beti izango dituzte zabalik selektzio honetako ateak.

Gainera, EMFren ilusioa adierazi nahi dugu proiektu honetan, hau da, Estatuko zein nazioarteko karreretan ordezkatea, eta hemendik aurrera bat egiteko aukera izango duten pertsona guztiengan konfiantza izatea, bereziki gure balio gazteengan, edo bertan jarraitzearen aldeko apustua egiten dutenengan.

EUSKAL SELEKTZIOAREN ALDEKO APUSTU GARBIA

Euskal Selektzioen ofizialtasunaren aldeko apustua egiten jarraitzen dugu, eta horretan lanean jarraitzen dugun bitartean, helburua mendi lasterketetako Euskal Selektzioak selektzio gisa funtzionatzea da, nahiz eta, jakina, talde gisa parte hartuko duen Estatuko eta nazioarteko probetan.

Gaur egun, nazioarteko beste selektzio batzuekin lehia duten hainbat proiektutan ari gara lanean. Euskal Selektzioaren nazioarteko egutegiarekin batera aurkeztu ahal izatea espero dugu.

EMFk eskerrak eman nahi dizkie Euskal Selektzioaren ordezkari direnei eta izan direnei, euren konpromiso eta dedikazioagatik.

Eskerrak eman nahi dizkiogu, halaber, klubei eta mendi lasterketen munduko pertsona ugari, dagoeneko gurekin harremanetan jarri baitira Euskal Selektzioarekin, entrenamenduekin eta abarrekin lankidetzan aritzeko prest daudela adierazteko.



La Euskal Mendizale Federazioa actualiza y hace más transparentes los criterios para la selección de los corredores y corredoras que representarán a la Euskal Selekzioa

Es deseo de la Euskal Mendizale Federazioa (EMF) ofrecer una explicación y en especial, comunicar los nuevos criterios que van a seguirse a la hora de conformar la selección de corredores y corredoras para las competiciones en las que tomaremos parte.

La renovación de la Euskal Selekzioa de carreras por montaña de la EMF va más allá del cambio de nombres propios al frente de cargos. Hemos establecido una serie de **criterios** para definir a aquellos corredores y corredoras que pueden optar a formar parte de la Euskal Selekzioa motivados en **méritos deportivos, aspectos objetivos y otros de carácter técnico**.

Más allá de los requisitos obligatorios establecidos como el hecho de tener licencia federativa, el compromiso manifiesto de representar la Euskal Selekzioa o la asistencia a las concentraciones o entrenamientos que programe el Área Técnica de Carreras por Montaña; hemos definido y queremos hacer públicos una serie de criterios de selección a los que los corredores y corredoras se pueden atener para conocer sus opciones de entrar a formar parte de la Euskal Selekzioa.

- **ACCESO DIRECTO** de los Campeones de Euskadi Individual y por Selecciones Autonómicas en cada una de las especialidades.
- Se tendrá en cuenta los **RESULTADOS** obtenidos por los corredores y corredoras en los **Campeonatos de Euskadi Individual** y los campeonatos de carácter **estatal y por Selecciones**.
- **CLASIFICACIÓN** provisional en la Copa de Euskadi y en la Copa de España.
- **RESULTADOS** en las diferentes pruebas de carácter **internacional y otras homologadas** por la EMF o la FEDME con nivel alto de participación
- También se valorará positivamente haber pertenecido al **grupo de tecnificación** de carreras por montaña de la EMF.
- A todo ello hay que implementar el **CRITERIO TÉCNICO** de los propios seleccionadores.



EUSKAL SELEKZIOA, MÁS ABIERTA, MÁS SELECCIÓN

Desde la EMF queremos aclarar que el motivo de la no continuidad de los que hasta la fecha han sido seleccionadores, no tiene que ver con los resultados deportivos obtenidos hasta ahora, sino por la voluntad y deseo de la actual Junta directiva de hacer de la Euskal Selektzioa una selección más **abierta**, con criterios de acceso y gestión más **transparentes**, y donde el **mérito deportivo** en competiciones siga siendo recompensado.

Tras constatar las discrepancias al respecto con los anteriores seleccionadores y no compartir la misma visión del proyecto, se toma la decisión de proceder al relevo de sus cargos para poner al frente a personas que, entendemos, puedan llevar el nuevo proyecto de Euskal Selektzioa en carreras por montaña y seguir dando pasos en la internacionalización de la marca, remando todas y todos en la misma dirección.

Respetamos las decisiones de aquellas personas que han manifestado su deseo de no competir con esta selección, que es de todo el conjunto de mendizales. Las y los mejores corredores siempre tendrán las puertas de esta selección abiertas.

Además, queremos trasladar la ilusión de la EMF en este proyecto, como es el de representarnos tanto en carreras de ámbito estatal como internacional, y la confianza en todas las personas que a partir de ahora, tendrán la oportunidad de sumarse, en especial nuestros jóvenes valores, o en aquellos y aquellas que apuesten por continuar en él.

APUESTA INEQUÍVOCA POR LA EUSKAL SELEKZIOA

Seguimos apostando por la oficialidad de las Euskal Selektzioak y mientras continuamos trabajando en ello, el objetivo es que la Euskal Selektzioa de carreras por montaña funcione como una selección, aunque obviamente competirá como equipo en las pruebas estatales e internacionales.



Actualmente estamos trabajando en diversos proyectos que tengan por fin la competencia con otras selecciones internacionales. Esperamos que lleguen a buen puerto y poder presentarlos junto con el calendario internacional de la Euskal Selekzioa.

La EMF quiere agradecer a todos y todas aquellas personas que han representado y representan a la Euskal Selekzioa su compromiso y dedicación.

También quiere agradecer a clubes y a las muchas personas del mundo de las carreras por montaña, que ya se han puesto en contacto con esta Federación para mostrar su disposición a colaborar con la Euskal Selekzioa, entrenamientos , etc.